

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	MAKINA INDUSTRIALEN ELEMENTUEN KONPONKETA	Iraupena	60
		Baldintzatua	
Kodea	UF0623		
Lanbide-arloa	Instalazioa eta mantentze-lanak		
Lanbide-eremua	Makineria eta ekipo industrialak.		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Ekipo industrialaren mantentze-lanak eta muntaketa mekanikoa	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Muntaketa eta mantentze-lan mekanikoak (zeharkakoa)	Iraupena	270
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Makina industrialen elementuak eta mekanismoak		60
	Makina industrialen elementuen muntaketa.	Iraupena	90
	Makina industrialen elementuetako matxuren diagnostikoa		60

A atala: GAITASUN-ERREFERENTEA

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0116_2 MAKINERIA ETA EKIPO MEKANIKOAK MUNTATZEA ETA MANTENTZEA gaitasun-ataleko LB4 lanbide-burutzapenarekin.

B atala: AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Elementuren bat ordeztea eskatzen duten mantentze-lanak egitea, prozedurak hautatuz eta behar den segurtasuna bermatuz.

EI1.1 Makina bat dugularik —zerbitzu-egoera errealean edo simulatuan— eta haren dokumentazio teknikoa daukagularik, ordeztu beharreko piezak edo elementuak aipatzen dituenak:

- Pieza edo elementu horiek dokumentazio teknikoan identifikatzea, horien ezaugarriak lortzea eta eragiketaren irismena ebaluatzea.
- Desmuntatze-/muntatze-plan bat ezartzea, baita aplikatu beharreko prozedurak ere, honako hauek adierazita: Deskonektatu beharreko elementuak. Makinaren zatiei dagokienez, isolatu beharrekoak. Kontuan hartu beharrekoak. Konexio-krokisa.
- Behar diren erremintak, neurgailuak eta bitartekoak aukeratzea.
- Desmuntatzeko/muntatzeko faseetan behar den segurtasun-plana ezartzea.
- Zirkuitu hidrauliko eta elektrikoetan konektatuta dauden ekipoetatik desmuntatu behar direnak isolatzea.
- Instalazioaren olioak berreskuratzea.
- Adierazitako piezak desmuntatzea, egiaztatzea eta, hala badagokio, ordezkatzeta, eta ekipoa berriro muntatzea.
- Ekipoak dagozkien zirkuituetara konektatzea.
- Ekipoa garbitzea, koipeztatzea... eta funtzionamendu-baldintzetan uztea.
- Ekipoak eta instalazioak ongi funtzionatzen dutela egiaztatzea eta, hala badagokio, haien sistemak erregulatzea, funtzionatzeko baldintzak leheneratzeko.
- Prozesuko lan-partea behar den zehaztasunez egitea.

Edukiak

1. Makina industrialen sistema mekanikoen konponketa

- Mantentze-lan mekanikoko eragiketei buruzko dokumentazio teknikoa.
- Konponketan erabili beharreko makinak, ekipoak, tresnak, erremintak eta baliabideak.
- Garbiketa, berriz estutzeak, ihesak, lubrifikazioa eta hoztea, besteak beste.
- Elementu mekanikoen doikuntzak eta erregulazioa.
- Desmuntatzeko prozedurak eta teknikak.
- Elementu mekanikoak neurtzeko eta egiaztatzeko teknikak.
- Mantentze-lan zuzentzaileak egitea pieza akastunak konponduz.
- Mantentze-lan prebentiboen planen jarraipenaren bidez konpontzea.
- Muntatzeko prozedurak eta teknikak.
- Egindako jardueren eta lortutako emaitzen txostenak egitea.

2. Makina industrialen sistema pneumatiko-hidraulikoen konponketa

- Elementu pneumatiko-hidraulikoen mantentze-lanetako eragiketei buruzko dokumentazio teknikoa.
- Konponketan erabili beharreko makinak, ekipoak, tresnak, erremintak eta baliabideak.
- Garbiketa, berriz estutzeak, ihesak eta lubrifikazioa, besteak beste.
- Presio, emari, abiadura eta abarren doikuntzak eta erregulazioa.

- Desmuntatzeko prozedurak eta teknikak.
- Elementu pneumatiko-hidraulikoak neurtzeko eta egiaztatzeko teknikak.
- Mantentze-lan zuzentzaileak egitea pieza akastunak konponduz.
- Mantentze-lan prebentiboen planen jarraipenaren bidez konpontzea.
- Muntatzeko prozedurak eta teknikak.
- Egindako jardueren eta lortutako emaitzen txostenak egitea.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta lanbide-eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestakuntza-atal hau egiteko gainditua izan behar du UF0622 Makina industrialen elementuetako matxuren diagnostikoa.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Ekipo industrialaren mantentze-lanak eta muntaketa mekanikoa.